

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 45/2018 Foru Dekretua, irailaren 4koa. Arabako Lurralde Historikoan fruta-arbolak ezartzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzea eta baita 2018rako deialdia ere

Landu daitekeen azalera handia dago Arabako Lurralde Historikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza azalera handiena duen lurraldea baita, eta azalera horren zatirik handiena urteko lehorreko laboreentzat izaten da, batez ere zerealentzat (garia, garagarra eta oloa), mahastientzat eta labore estentsibo ureztatuentzat, hala nola erremolatxa eta patata. Beste lurralde mugakideetan gertatzen denaz bestela, labore iraunkorrak ez dira ohikoak Araban, mahastia izan ezik.

Hala ere, Arabako dibertsitate edafoklimatikoak eta aldeko orografiak ahalbidetzen dute lurralde egokia izan dadin fruta arbola jakin batzuk hazteko, hala nola sagarrondoak, gure lurraldean antzina-antzinatik dagoen labore tradizionala baita eta asko eta askotarikoak baitira testigantzak diotenak labore hori lantzea gure kulturari, gure aziendei eta gure baserriei loturik dagoela.

Berriki eratu da Euskal Sagardoa Euskal Herriko sagardo naturalaren jatorri deitura babes-tua, eta horrek aukera ematen du sagarrondoaren laborantza garatzeko eta haren ekoizpenari loturiko jarduera eraldatzailea sustatzeko. Jatorri deitura sortu da kalitate handiko produktu tradizional horren garrantzia azpimarratzeko eta tokian tokiko sagarrondo barietateen laborantza sustatzeko Euskal Herrian.

Arabian sagardotarako sagarrondoak landatzeak erantzuna eman diezaiotke euskal sagardogintza sektoreak bertako kalitatezko sagarrak aldizka eta nahikoa den kopuruan edukitzeko duen premia larriari, bai sagardoa egiteko, bai zukuak egiteko, gure lurraldearen zatirik handieneko baldintza edafoklimatikoei eta fisikoei esker haiek landatu eta inausi, uza biltzeko lurzatiak mekanizatu eta tratamenduak aplikatu baitaitezke, eta hala ekoizpen kostuak murrizten dira.

Badira beste fruta arbola batzuk ezen aurrekoa bezalako fruta arbolaren garrantzia eta jatorri deitura edo kalitate marka loturik eduki ez baina bereziki interesgarriak direnak lurralderako, laguntzen dutelako nekazaritza jarduera dibertsifikatu eta mantentzen, tokian tokiko barietateak edo nekazaritza dibertsitatea kontserbatu eta hobetzen, paisaia kontserbatzen, eta abar. Intxaurrendoa edo olibondoa bezalako laboreak interesgarriak dira eta, inolako zalantzarik gabe, xede horiek lortzen laguntzen dute.

Aukera hori daukagunez eta frutikulturak Araban zer potentzialtasun daukan sakon jakiteko, Arabako Foru Aldundiak alde aurreko azterlan bat egin du ebaluatzeko eta jakiteko zein egoe-ratan dagoen orain sagarraren laborantza Araban, eta horrek abiapuntutzat balio izan du fruta arbola hori datozen urteetan gure lurraldean sustatzeko estrategia diseinatzeke.

Nekazaritza Sailak, nekazaritza ustiatzietarako daukan laguntza planaren bidez, baliabideak bideratzen ditu nekazarietara ustiatzietan egiten dituzten inbertsio mota guztiak diruz laguntzeko, baina laguntza horiek lortzeko eskatzen diren baldintzak eta batez ere eskatzailea nekazaria edo nagusiki nekazaria izan beharrik frutikulturaren aurrerapena baldintzatu du.

Gabezia horri aurre egin eta fruta sektorearen eskariari erantzunez, Nekazaritza Sailak, foru dekretu honen bidez, fruta arbolak sustatu nahi ditu, nekazaritza ustiatzietako titularrei diruz

lagunduz fruta arbolak jar ditzaten; hain zuzen ere, nagusiki nekazaria ez izanik ere nekazaritza jarduera egiten dutenei, eta horrek gure nekazaritza ekoizpena dibertsifikatzeaz gain nekazarien nekazaritza errenta handitzen lagunduko du.

Dirulaguntza hori Batzordearen 2014ko ekainaren 25eko 702/2014 (EB) Erregelamenduaren 14. artikuluko xedapenen arabera emango da, zeinaren bitartez nekazaritza eta basogintza sektoreetan eta landa eremuetan laguntzen zenbait kategoria barne merkatuarekin bateragarriak direla adierazten baita, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

Edozein motatako landaketa lanek luze jotzen dute, klimatologiaren baldintzen pean daude, eta gehienetan alde zuzeneko lanak egin behar izaten dira, hala nola lursailak prestatu, lurrak eta itxurak aztertu, eta abar; horiek horrela, beharrezkoa da nahikoa denbora uztea landaketak modu teknikoki egoki eta eraginkorrean egiteko, eta horrek bultzatzen du laguntza horiek egoztera deialdiaren aurrekontu ekitaldiaren hurrengo ekitaldira.

Arabako Foru Aldundiaren 2018ko gastuen aurrekontuan bada partida bat 2019. urtealdirako, 30.000,00 eurokoa, laguntza lerro horretarako; hortaz, haien aurtengo deialdia onartu behar da.

Burutu dira Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapide guztiak, zeinaren bidez onartzen baita xedapen orokorrak egiteko prozedura.

Aginduzko txostenak ikusi dira, haien ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onspena ematea Arabako Lurralde Historikoan fruta arbolak ezartzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriei, honekin batera doan eranskinaren artikuluekin bat etorritz.

Bigarrena. Onspena ematea laguntza lerro horren 2018ko deialdiari, ondoko xehetasunaren arabera:

Eskabideak non eta zein epetan aurkeztu behar diren: 30 egun naturaleko epean, foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik, ustiategiaren kokalekuko Nekazaritzako Eskualde Bulegoan edo Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuan. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritakoa kaltetu gabe. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Kreditua gordetzea: guztira 30.000,00 euro gordetzea, Arabako Foru Aldundiaren 2018. urterako gastuen aurrekontuko 40.1.01.42.01.770.00.06 "Labore alternatiboen proiektu pilotua" partidaren 2019ko urtealdiaren kargura.

Kreditu horrek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 21.2.b) artikuluan xedatutako muga barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioerengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzagatik ere.

Deialdi honetan, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera landatutako fruta arbolak onartuko dira; hortaz, data horretatik aurrerako gastu egiaztagiri eta ordainagiriak onartuko dira.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteko deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren errekurso guztiak ebatzeko.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2018ko irailaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

I. ERANSKINA

1. artikulua. Xedea eta definizioak

Foru dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan fruta arbolak ezartzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak ezartzea.

2. artikulua. Onuradunak

2.1. Dekretu honetan arautzen diren laguntzen onuradun izan daitezke betekizunak bete eta laguntzaren oinarri arautzaileen 3 eta 16. artikuluetan ezarritako konpromisoak betetzea hitzematzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak (ustiategi elkartuak).

2.2. Laguntza honen ondoreetarako, sozietate zibilak eta ondasunen erkidegoak nortasun juridikodun erakundetzat hartzen dira.

2.3. Foru dekretu honen ondoreetarako, izatezko bikoteak ezkonduetakoen parekoak izango dira, maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak xedatutakoarekin bat etorritz.

3. artikulua. Onuradunen betekizunak

Laguntza horien pertsona edo erakunde onuradunek ondoko betekizun hauek bete beharko dituzte:

3.1. Oro har:

3.1.a. Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan behar bezala inskribatutako nekazaritza ustiategi baten titularra izatea.

3.1.b. Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edukitzea. Artikulu honen 3.3.1 idatz zatian xedatutako pertsona juridikoen, zerga helbidea Araban izateaz gain, erakundeak Araban izan beharko du egoitza. Ondorio horietarako, betekizun hori betetzen dela ondorioztatuko da baldin eta pertsona juridikoaren sozietatearen egoitza eta zerga egoitza ALHn badago eta, gutxienez, bazkide guztien ehuneko 50en (era berean, sozietatearen kapitalaren ehuneko 50eko partaidetza eduki behar dute gutxienez) sozietatearen egoitza eta zerga egoitza ere Araban baldin badago.

3.1.c. Laguntza eman baino lehen, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga bete-beharren ordainketa egunean edukitzea. Sozietate zibil eta ondasun erkidegoei dagokienez, sozietateak edo erkidegoak eta bazkide guztiek betebeharrak egunean dauzkatela frogatu beharko da.

3.1.d. Itzulketa edo zehapen prozeduraren batean sartuta ez egotea.

3.1.e. Administrazio edo zigor zehapenik ez edukitzea sexu bereizkeria egiteagatik, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, kontuan hartuz.

3.2. Ustiategiaren titularra pertsona fisikoa bada:

Gainera, ondoko betekizun hauek bete beharko ditu:

3.2.a. 18 urtetik gorakoa eta 65 urtetik beherakoa izatea laguntza eskabidea aurkezten duenean.

3.2.b. Fruta jarduera zuzenean gauzatzea.

3.2.c. Laguntza eskabidea aurkeztean, edo, hala badagokio, laguntzaren azken ordainketa baino lehen, behar bezalako gaitasun profesionala edukitzea, eta hori egiaztatuko da baldin eta kasu hauetakoren bat betetzen bada:

– Nekazaritza arloko titulu akademikoa izatea, gutxienez lanbide heziketako 1. mailakoa.

– Fruta sail bat inskribatuta izatea Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan, eskabidea aurkeztu baino bi urte lehenagokoa behintzat.

– Fruta sektorearekin loturiko 30 orduko nekazaritza prestakuntza edo besteren kontura lan egin izanaren esperientzia egiaztatzea.

Laguntzaren azken egiaztapenera arte eman ahalko da prestakuntza osatzeko epea. Laguntzaren azken egiaztapena egin behar denerako prestakuntza ez badago behar bezala egiaztatuta, ez da dirulaguntza ordainduko.

3.2.d. Nekazaritzako jardueraren ondoriozko erretiro pentsiorik, erabateko baliaezintasunaren edo baliaezintasun osoaren ziozko pentsiorik ez kobratzea.

3.3. Ustiategiaren titularra pertsona juridikoa bada. (Ustiategi elkartuak)

Ustiategi elkartuek behean ageri diren izaera juridikoetako bat hartu beharko dute eta, gainera, izaera orokorreaz azaldutako betekizunnez gain, ondoren adierazitakoak bete beharko dituzte:

Lan sozietateak, anonimoak, mugatuak edo bestelako merkataritzako sozietateak, ondasun erkidegoak, sozietate zibilak, lurra erkidegoan ustiatzeko kooperatibak (LEUK), eraldaketarako nekazaritza sozietateak (ENS) eta lan elkartuko kooperatibak:

3.3.1. Bazkideen ehuneko 50ek, gutxienez, 3.2 idatz zatiak pertsona fisikoentzat ezarritako betekizunak bete beharko dituzte, eta sozietatearen kapitalaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50, gutxienez, eduki beharko dute.

3.3.2. Bazkideen partaidetzek edo akzioek izendunak izan beharko dute, eta sozietatearen xedeak, estatutuetan jasota, nekazaritzako jarduera garatzea izan beharko du.

3.3.3. Sozietate zibilak agiri publiko bidez eraturitakoak izan beharko dira.

3.3.4. Jaraunspen erkidegoetan eta ondasun erkidegoetan, indibisio ituna egon beharko du, gutxienez sei urtez.

3.3.5. Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan izena emanda egon beharko dute.

4. artikulua. Inbertsioak onartzeko betekizun orokorrak

Inbertsioen gastuak diruz lagungarriak izan daitezzen, honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

4.1. Fruta arbolen sail berriak edo lehendik dauden beste batzuk handitu izana izatea, 0,5 ha-ko gutxienerako azalera batean ustiategiko edo espezieko, eta baldintza hauek betetzea:

4.1.1. Sail erregular eta homogeenok izatea; ez dira onartuko lerro sinpleak edo ale isolatuak.

4.1.2. Landaketa lanak nahitaez izan beharreko pasaporte fitosanitarioa daukan landare materialarekin baino ezingo dira egin. Sagarrondo, madariondo, irasagarrondo eta mizporondoen kasuan, su gorrinetik babestutako zonarako (*Erwinia amilovora*) izango da, gainerako fruta arbolen kasuan, pasaporte fitosanitario estandarra.

4.1.3. Txertakak: txertaka franko eta klonalak onartuko dira.

4.1.4. Gidatze sistemak eta landaketa esparruak askeak izango dira, baldin eta landaketen gutxieneko dentsitate bat badute. Nekazaritza Sailak gutxieneko landaketa esparruak zehaztu ahalko ditu espezie bakoitzaren arabera.

4.1.5. Baldin eta fruta arbolak badira kalitate marka, jatorri deitura edo adierazpen geografiko babestuei heldutako ekoizpenetarako, landaketarako ezarritako arau eta baldintza agiriak bete beharko dituzte.

4.2. Landaketak gauzatuko diren lursailak Arabako Lurralde Historikoan egongo dira.

4.3. Landaketa lurzatia jabetzan, lagapen erregimenean edo errentan eduki beharko du pertsona edo erakunde eskatzaileak. Jabetza eskrituraren bidez egiaztatuko da jabetza, eta errenta, berriz, gutxienez 10 urteko errenta kontratuaren bidez, zeina Eusko Jaurlaritzako Landa Errentamenduen Erregistro Ofizialak balidatu eta erregistratuko baitu. Lagapena justifikatu beharko da horretarako berariaz sinatutako eta gutxienez 10 urterako kontratu bidez.

4.4. Lurzatietan ureztatzeko instalazioak koherentzia izan beharko dute planifikazio hidrologikoarekin eta Uraren Esparru Zuzentarauarekin, bateragarriak izan behar dira ingurumenarekin, eta uraren erabilera neurtzeko sistema bat eduki behar dute.

4.5. Landaketak laguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak ezarri ahalko ditu Nekazaritza Sailak.

5. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

5.1. Ondoko fruta arbola hauek, lehendik daudenak baino gehiago edo berriak, landatzeko inbertsio gastuak diruz lagunduko dira:

- Lursailaren analisi fisiko-kimikoak.
- Lursaila prestatzeko lanak (nibelazioa, lurpe lanketa, areatzea eta abar)
- Landaketa lana egin baino lehenagoko medeapenak eta hondoko ongarritzeak.
- Arbola landareak eskuratzea.
- Landaketari loturiko kostuak (zuinketa, lurra zulatzea, landaketak, etab.)
- Euskarri egiturak.
- Sailaren perimetroaren itxiturak eta orkatzak, basurdeak, untxiak eta halakoak bezalako animaliak
- Ureztaketa sistemak.
- Azterlan eta dokumentu teknikoak idaztea eta ordainsariak.

5.2. Inbertsio horiek diruz lagundu ahal izateko, landaketen baterako plan batean egon behar dira.

6. artikulua. Diruz lagundu ezin diren inbertsio gastuak

Oro har, ondoko gastu eta inbertsio hauek daude laguntzen araubidetik kanpo:

- 6.1. Norberaren lanak.
- 6.2. Drainatze obrak.

6.3. Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) edo beste edozein zerga, tasa, berandutze interesak eta inbertsioaren ondorioz kontratatutako aseguruak.

6.4. Trufa lantzeari loturiko espezieak ezartzeko inbertsioak.

6.5. Mahastiak hazi eta haiek landatzeko lursailak egokitzea; haiek berariazko araudiari men egin beharko diote.

6.6. Laborea mantendu eta hutsarteak betetzeari loturiko gastuak.

6.7. Landaketen baterako plan batean sartzen ez diren inbertsio isolatuak, hala nola: lurpe lanketak, itxiturak, banakako babesgailuak, ureztaketak, euskarri egiturak eta abar.

7. artikulua. Gastu onargarriaren mugak

7.1. Diruz lagundu daitekeen inbertsioa edo inbertsio multzoa ustiategi baterako gehienez ere 19.000,00 eurokoa eta gutxienez 3.000,00 euroko izango da, salbu eta ekoizpen ekologikoaren ziurtagiria daukan ekoizpena bada, halakoetan gutxieneko inbertsioa 1.500,00 eurokoa izango baita.

7.2. Ekoizpen ekologikoaren salbuespenari heltzeko, ustiategi guztia ekoizpen sistema honetan egiaztatuta egon beharko da.

8. artikulua. Kostuak neurtzea eta inbertsioak balioztatzea

8.1. Laguntza honen ondoreetarako, egindako inbertsioak diruz laguntzeko moduko kostu gisa ebaluatzeko helburuz, honako helbide honetan argitaratutako ebaluazio modulu ofizialei eta diruz lagungarri diren gehieneko inbertsioaren mugei men egin beharko zaie:

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/osoa_dokumentazioa/es_def/PDR_modulos_4_1_4_3.pdf

8.2. Pertsona edo erakunde eskatzaileak laguntzaren xede den inbertsioari buruzko aurrekontua edo proformako faktura aurkeztu beharko du. Ildo horretan, diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko da, ondokoen artean, zenbateko txikiena daukana: moduluak aplikatetik ateratzen den emaitza edo inbertsio onargarriaren gehieneko gastua, halakorik balego, eta aurkeztutako eskaintza.

8.3. Eskatutako diruz laguntzeko moduko gasturen batentzako modulurik izan ezean, eta gastuen zenbatekoak gainditzen badu azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, sektore publikoaren kontratuenak, kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak, eskatzaileak, gutxienez, hiru hornitzailearen eskaintzak aurkeztu beharko ditu.

8.4. Aurkeztutako eskaintzen artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da, eta justifikatu egin beharko da aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean eta diruz laguntzen denean.

8.5. Inbertsioak ezaugarri bereziak badauzka eta eskaintza hori egin ahal izateko hornitzaile nahikorik ez badago merkatuan, merkatuko prezioak aintzat hartuko dira edo, bestela, 38/2003 Legeak ezarritakoari men egingo zaio.

9. artikulua. Espedienteak sailkatzeko irizpideak

Laguntza espedienteak sailkatzeko irizpideak puntuen arabera barematuko dira, ondoko hauen tipologiari jarraiki: onuraduna eta ustiategia.

9.1 Onuradunaren tipologia.

9.1.1 Banakako eta titulartasun partekatuko ustiategiei dagokienez, ondoko puntuazio hau aplikatuko da, pilatu ezin daitekeena:

— Hasten ari diren edo EAEko Landa Garapeneko 2015-2020ko Planaren M06.1 neurriari ("Nekazari gazteek enpresa sortzea") heldutako enpresaren plana garatuz sektorean sartzeko

prozesuan dauden gazteek sustatutako landaketa planak: (instalatzeko prozesuak dirauen bitartean, aurkeztutako enpresa planaren arabera) 45 puntu.

– Dagoeneko instalaturik dauden nekazari gazteek (41 urtetik beherakoek) sustatutako landaketa planak: 35 puntu.

– Titulartasun partekatuko ustiategi batetik sustatutako landaketa planak edo titularra emakume nekazari bat duten ustiategi batetik sustatutakoak: 25 puntu.

– Sektorean hasten diren 41 urtetik gorako titularrek sustatutako landaketa planak: 15 puntu.

– Gainerako onuradunek sustatutako landaketa planak: 10 puntu.

9.1.2. Nekazaritzako ustiategi elkartuen kasuan:

9.1.2.1 9.1.1 artikulua ezarritako puntuazioa aplikatuko zaie 3. artikuluan jasotako pertsona onuradunen baldintzak betetzen dituzten kide eta bazkideei. Gainerako kasuan, ez da baloraziorik egingo.

9.1.2.2 Azken puntuazioa ateratzeko, balioetsi den erakunde elkartuko kide eta bazkideen puntuazioa aintzat hartuko da. Balioak kalkulatu beharko dira bazkide bakoitzak sozietatearen kapitalean edo banaketa kuotan daukan partaidetzaren arabera, guztizko puntuazioa ateratze aldera.

9.1.2.3 Emaizta zenbaki dezimala bada, zenbaki oso batera biribilduko da (puntu erdiko biribiltzea gorantz egingo da).

9.1.2.4 Onuradunen bat tipologia bati baino gehiagori atxiki ahal bazaio, puntuak ez dira metagarriak izango, eta puntu gehien ematen dizkion tipologia esleituko zaio.

9.1.3 Onuradunak ziurtatzen badu nekazaritzaren arloko prestakuntza iraunkorreko ikastaroe-tara joan dela, gutxienez 40 orduz, zentro ofizial homologatuek emandako ikasturte guztienak zenbatuta, 5 puntuko osagarria izango du, zehaztapan hauekin:

Aurreko laguntza deialdia hasi zenetik oraingo deialdia hasi denera arteko denboraldian eginda egon behar dira ikastaroak. Eskatzaileak ez bazuen laguntza eskabiderik egin edo aurreko deialdian ez bazuen laguntza jaso, ikastaroak burutzeko epea deialdiaren aurreko urte naturaletik deialdia hasi arte zenbatuko da. Nolanahi ere, ikastaro bat ezin da balidatu deialdi ezberdinetan puntuak zenbatzeko.

Nekazaritzako ustiategi elkartuei dagokienez, aipatutako 5 puntu osagarriak lortu ahal izateko, nahitaezkoa izango da bazkideen ehuneko 50ek, gutxienez, betekizuna betetzea eta, gainera, bazkide horiek, gutxienez, sozietatearen kapitalaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50, eduki behar dute.

9.2 Ustiategiaren tipologia.

9.2.1. Ondoko tipologia hauetako bati atxikitako ustiategietan sustatutako landaketa planei beste 20 puntu gehiago (ez metagarriak) eman ahalko zaizkie:

– Lehenetsutako ustiategia, Nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko uztailaren 4ko 19/1995 Legeak xedatutakoari jarraiki.

– Ekoizpen ekologiko ziurtatura edo kalitate ziurtatuko programetara bildutako ustiategiak. LGPren 3.1 azpineurriak, "Nekazariak kalitate erregimenetan lehen aldiz parte hartzeko laguntza" babesten ditu aurrekoak.

– Eskabidea egiten den ekitaldiaren aurrekoan, nekazaritza eta ingurumen laguntzei lotutako espedientea onartuta izan duten ustiategiak.

– Ekoizpenaren ehuneko 40, gutxienez, zirkuitu laburren bitartez merkaturatzen duten ustiategiak.

9.2.2 Ustiatagia mendialdean edo bestelako mugapen natural zein berariazkoak dituen alderen batean badago, beste 5 puntu gehiago izango ditu.

Ondore horietarako, nekazaritzako ustiatagi elkartuei dagokienez, nahitaezkoa izango da ustiatagiaren azaleraren gehiena mendialdean egotea; bestalde, abeltzaintzari lotutako elkartze ustiatagiei dagokienez, nahitaezkoa izango da abelburu gehien dituzten instalazioak mendialdean egotea.

9.3 Landaketa plan batek gehienez ere 75 puntu lortu ahalko ditu.

9.4 Puntuazio altuena lortu duten planek lehentasuna izango dute puntuazio gutxiagokoen gainetik. Puntu berdinak edukiz gero, zenbateko gutxiena duten planek lehentasuna izango dute zenbateko handiena dutenen gainetik. Baldin eta berdinketarik egonez gero, lehentasuna izango dute titulartasuna nekazari gazte batena baino ez den ustiatagiek eskatutakoek, gero bazkide guztiak nekazari gazteak direnek, eta adinez gazteenak diren titularrek adinez nagusienak direnen gainetik. Inbertsio batzuen arteko berdinketa suertatzen bada, zozketa bidez ebatziko da.

10. artikulua. Laguntzen era, ehunekoa eta zenbatekoa

10.1. Laguntzak zuzeneko dirulaguntza gisa esleituko dira, gastu onetsiaren gaineko ehunekoen arabera, hurrengo idatz zati hauetan adierazitakoari jarraiki.

10.2. Oro har, laguntzaren guztizko zenbatekoa, diruz lagungarria den inbertsioaren bolumenaren ehuneko gisa adierazita, onartutako inbertsioaren balioaren ehuneko 40koa izan ahal izango da, gehienez ere.

10.3. Aurreko idatz zatian jasotako muga barruan, laguntzen zenbatekoa, diruz lagungarria den inbertsioaren bolumenaren ehuneko gisa adierazita, ondoko hau izango da:

10.3.1. Oinarrizko dirulaguntza: ehuneko 20

10.3.2. Hala badagokio, oinarrizko dirulaguntza handitu egingo da dena delako espedienteari esleitutako puntu kopuruaren arabera, honako oinarri hauen 9. artikuluan ezarritako ehunekoei jarraituz:

– 10-39 puntu bitartean: + ehuneko 0

– 40-59 puntu bitartean: + ehuneko 10

– 60-75 puntu bitartean: + ehuneko 20

10.4. Ustiatagi elkartuei dagokienez, bazkide edo kide guzti-guztien sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan ez dagoenean eta, era berean, bazkide guztiek adinari buruzko eskakizunak betetzen ez dituztenean, esleitu beharreko laguntzaren zenbatekoa eskakizunak betetzen ez dituzten kideen partaidetzaren heinean murriztuko da.

11. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea, era eta tokia

11.1. Urtero onetsiko da laguntza deialdia. Deialdi horrek hauek jasoko ditu:

– Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

– Deialdia ebatzeko erreserbatzen diren kredituak.

11.2. Laguntza eskabidea inprimaki normalizatuan aurkeztuko da eta, eskabideaz gain, honako foru dekretu honen eranskinean zehaztutako agiriak aurkeztu beharko dira. Urte bakoitzeko eskabide bakarra aurkez daiteke.

11.3. Eskabideetan akatsik dagoela edo daturik falta dela antzematen bada, organo instruktoreak, hala badagokio, interesa dutenei eskatuko die eskabidean galdatutako betekizunen gaineko akatsak zuzendu ditzatela edo eskatutako dokumentuak bidal ditzatela, 10 egun balio-duneko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita, larunbatak kontuan hartu gabe. Jakinarazpen horretan berariaz adieraziko da, eskatutakoa bete ezean,

eskabidea ezetsi egingo dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68. artikulua xedatutakoari jarraituz.

11.4. Eskabidea aurkeztuz gero, organo kudeatzaileak baimena izango du eskatu beharreko egiaztagiria eta informazioa eskatzeko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailari eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileari; hala berean, beharrezko informazioa eskatu ahalko die ustiategiaren erregistro ofizialei, betiere espedientea ebazteko xedez.

11.5 Eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak berariaz onartuko ditu laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak.

12. artikulua. Izapidetzea

12.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, espedienteak Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak izapidetuko ditu.

12.2. Espedientea instruitzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahal izango ditu, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hau betetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

12.3. Eskabide guztiak aztertuko dira, eskatzaileak onuradun izateko eskatzen diren betekizun guztiak betetzen direla egiaztatzeko, gastu onargarria zehazteko, inbertsioari esleitu beharreko puntuazioa hautapen irizpideei jarraiki eta proposamenari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa. Hala, prest geratuko dira ondore horretarako sortutako kide anitzeko organoak balioetsi ditzan, eta organo horrek, hain zuzen ere, egindako balorazioa jasotzen duen txostena egingo du, onartutako proposamenak, baztertutakoak eta arrazoiak azalduta.

12.4. Foru dekretu honetan ezarritako laguntzak lehia bidez esleituko dira, foru dekretu honetako 9. artikuluan ezarritako espedienteak sailkatzeko irizpideen arabera.

12.5. Balioespeneko kide anitzeko organoa ondoko hauek osatuko dute:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua.
- Zerbitzu horri atxikitako laguntzen teknikari bat.
- Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuaren burua.
- Administrazio Kudeaketaren Atalaren burua.

12.6 Instrukzio organoak argitu eta ebatzi beharko ditu foru dekretu honetan jasota ez dauden alderdi tekniko guztiak, laguntza esleitu ahal izateko.

13. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

13.1. Kide anitzeko balorazio organoak hala proposatuta, foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarra duen araudian oinarrituta. Ebazpen horrek administrazio bidea amaituko du eta bidezkoa izango da haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, errekurtsio horretarako arauak jarraituz. Aukerako berraztertze errekurtsua ere jarri ahal izango da.

13.2. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarota berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, administrazioaren isiltasunak eskabidea ezetsi dela esan nahiko du, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 25.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

13.3. Laguntzak esleitzeko ebazpenak honako hauek zehaztu beharko ditu espediente bakoitzeko: esleitutako dirulaguntzaren ehunekoak eta zenbatekoak, eta laguntza edo diruz lagundutako gastua zer inbertsiotarako eman den. Ebazpena negatiboa izanez gero, arrazoia zehaztu beharko da.

13.4. Laguntzaren ebazpena banaka jakinaraziko da eta, ere berean, honako informazio hau guztia ere adieraziko da jakinarazpenean: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, ehunekoa, diruz laguntzen den inbertsioa, diruz lagundutako inbertsioaren gaineko gastua, gauzatzeko epea eta urtekoak eta, hala badagokio, laguntza ezesteko arrazoia.

13.5. Halaber, ezarritako baldintzak eta onuradunak bere gain hartu beharreko konpromisoak ere agertu behar dira.

14. artikulua. Landaketa planaren aldaketak eta gauzatzeko epea

14.1. Diruz lagundutako inbertsioak haiek esleituriko urtearen hurrengoko abenduaren 30a baino lehen amaitu beharko dira, eta haien zenbatekoa ekitaldi horri egotziko zaio. Eskabidearen ondoren egingo diren inbertsioetarako, beharrezkoa izango da ez hasteko akta jasotzea inbertsioa egiten hasteko, nahiz eta espedientearen ebazpena aurkakoa izan.

14.2. Hala eta guztiz ere, pertsona edo erakunde onuradunak landaketa plan diruz lagundua aldatzeko eskatu ahal izango du, aldaketa behar bezala justifikatuta badago eta plana gauzatzen hasi ez bada.

14.3. Nekazaritza Saileko titularrak, foru agindu bidez, alde ala kontra ebatziko du eskatutako aldaketa, eta ebazpen horren berri emango zaie onuradunei.

14.4. Aldaketek ezin dute inola ere aldarazi inbertsioaren helburua; bestetik, ezin dute hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa handitu.

14.5. Laguntzaren pertsona edo erakunde onuradunak inbertsioak gauzatzen ez baditu ezarritako epean, arrazoitutako kausarik egon gabe, laguntzaren eskubidea galduko du eta 3 urteko epean ezin izango du beste laguntzarik eskatu inbertsio berdinarik gauzatzeko.

14.6. Pertsona edo erakunde onuradunak esleitutako laguntzari uko egin diezaioke, eta uko egin diezaioke hura onartu ondoren eta inbertsioa gauzatzeko epea bukatu baino lehen. Baldin eta ordainketaren bat jaso bada, itzuli egin beharko da kobratutako zenbatekoa, eta, harekin batera, dagozkion interesak.

14.7. Laguntzari uko egitea idatziz aurkeztu beharko da. Espedientearen organo instrukto-reak, txosten bidez, laguntzari uko egitea onartu eta prozedura amaitutzat eman ahal izango du. Ukoa gorabehera, laguntzaren oinarri arautzaileetan xedatuko da laguntzari uko egitea arrazoi justifikaturik eman gabe zehatu egingo dela. Laguntzari uko egitea onartuta, pertsona edo onuradunak berehala galduko ditu ebazpenak aitortutako eskubidea eta emandako laguntza kobratzeko eskubidea. Halakoetan, baina, inbertsio berdina gauzatzeko laguntza eskatu ahal izango du hurrengo deialdietan.

15. artikulua. Laguntzen ordainketa

15.1. Jardun guztiak gauzatatukoan, laguntza ordainduko da, laguntzaren pertsona edo erakunde onuradunak ordaintzeko eskabidea egin ondoren eta honako agiri hauek guztiak eman eta gero:

Egindako gastuen justifikazioa, jatorrizko faktura eta konpultsatzeko kopia aurkeztuta. Jatorrizko faktura zigilu baten bidez kontrolatuko da, zeinak adieraziko baitu Arabako Foru Aldundiak diruz lagundu duela.

Faktura ordaindu izanaren egiaztapena, jatorrizko agirien bidez edo agiri konpultsatu hauen bidez: bankuko jatorrizko ziurtagiria, gutxienez transferentzia edo ordainketaren zenbatekoa, data eta onuraduna zehaztuko dituen; posta arruntez jasotako bankuko jatorrizko laburpenak,

kasuan kasuko mugimenduak jaso dituen kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, edo bankuko laburpen elektronikoak, e-mailez jasotakoak, edo ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiludun agindu telematikoak.

Erabilitako landare materialaren pasaporte fitosanitarioa (landareen etiketak, fakturak eta/edo albaranak).

Nolanahi ere den, 2.500,00 euroko edo gehiagoko gastuak banku transferentziaren edo bankuko beste tituluren baten bidez egiaztatu beharko dira, urriaren 29ko 7/12 Legeak, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzei eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzkoak, 7. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Laguntza eskabidea aurkezten denetik aurrerako fakturak eta gastu eta ordainketen ordainagiriak onartuko dira.

15.2. Ordainketak onargarri edo diruz lagungarritzat jotzen diren zenbatekoen oinarriaren gainean egingo dira, ordaintzeko eskabidearen administrazio kontrol egokia egin ondoren.

Dirulaguntza ordaindu ahal izateko, dirulaguntzen gutxieneko zenbatekoa (7.1 artikuluan aipatzen dena) baino handiagoa izan beharko da diruz lagundu ahal den inbertsioa.

Dirulaguntza ordaintzeko, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean eduki beharko ditu.

16. artikulua. Pertsona eta erakunde onuradunen konpromiso eta betebeharrak

16.1. Dirulaguntzen pertsona eta erakunde onuradunek hitzematen dute hauexek egingo dituztela:

– Landaketa plan bat egin laguntza esleitzeko ebazpenean eta oinarri hauetan ezarritakoren arabera.

– Saila edo sailak jardunean mantendu 10 urtez laguntza esleitzen denetik. Laborea bertan behera utzita dagoela ulertuko da abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuaren 11. artikulua jasoriko irizpideak betetzen direnean.

– Landatutako lurzatiak Arabako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan sartu, laguntzaren pertsona edo erakunde onuradunaren titulartasuneko den nekazaritza ustiategiaren barruan.

– Landaketaren eta erabilitako landare materialaren, pasaporte fitosanitarioen eta landare materialaren albaranen edo fakturen datuak eman.

– Saitetara sartzen lagundu, azterketa ofizialak, ikuskapenak eta prospekzioak egiteko, landare osasungintzaren eremuaren barruan.

16.2. Pertsona eta erakunde onuradunek hauexek egin behar dituzte dirulaguntza dela-eta:

– Emandako dirulaguntza onartu eta eman zaion erabilera zehatzerako baliatu, laguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Dirulaguntza emateko jakinarazpena jasotzen denetik hamar egun baldioduneko epean onuradunak ez badio berariaz eta idatziz uko egiten dirulaguntzari, onartu egin duela ulertuko da.

– Honako foru dekretu honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako konpromiso eta betebehar guztiak betetzea.

– Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari, Ogasun Sailari eta Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunak gauzatzean eskatzen duten informazioa eman foru dekretu honen babesean jasotako laguntzari buruz.

– Administrazioak egiten dituen zein lekuan bertan egiten diren kontrolak ahalbidetu, honako hauek egiaztatzeko: laguntza behar bezala eman eta garatzen ari dela, lagundutako inbertsioak egoki gauzatzen ari direla eta, horren ondoren, konpromisoei eusten zaiela.

17. artikulua. Ezarritako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea

17.1 Pertsona edo erakunde onuradunak honako foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, edo laguntza eskuratuz gero horretarako beharrezkoak diren betekizun guztiak bete gabe, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dizkio Arabako Foru Aldundiko Ogasunari, bai eta legezko interesari dagokien zenbatekoa ere, eta laguntza bera edo geroko ordainketetan jaso beharreko zenbatekoak gutxituko zaizkio, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritakoari jarraiki bidezkoak diren egintzei kalterik egin gabe.

17.2. Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, legez dagozkion ondorioetarako.

17.3. Nekazaritza Sailaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntza osorik edo horren zati bat itzuliko den, ikuskapen edo kontrol txostena eta itzultzeko proposamena ikusirik, eta onuradunari entzun ondoren.

17.4. Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako arau hausteen ziozko zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

17.5. Jarduera egiteari uzten zaionean, ustiategia beste titular bati eskualdatzen bazaio eta titular berriak lagatzaileak zeuzkan konpromisoak subrogatzen baditu, ez da ez-betetzat hartuko.

17.6. Hartutako konpromisoen ez betetzerik ez dagoela ulertuko da baldin eta ez betetzea ezinbesteko baten ondorio edo inguruabar berezien ondorio bada, adibidez:

- Ekoizlea hiltzea edo luzaroan lanbiderako ezinduta egotea.
- Ustiategiko nekazaritza lurretan eragin handia izan duen hondamendi natural larria gertatzea.
- Ustiategiko eraikinak istripuz hondatzea.

Pertsona edo erakunde onuradunak ezinbesteko kausen edo salbuespenezko inguruabarren berri jakinaraziko die agintari eskumendunei.

18. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan adierazitako dirulaguntzen laguntzen onuradunak urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, xedatutakoaren menpe egongo dira. Horiek horrela, behartuta egongo dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste organo batzuek eskatutako agiriak aurkeztera, halaxe xedatzen baitu aipatutako foru arauak 8 i) artikuluan.

19. artikulua. Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin

19.1. Dekretu honetan garatzen diren laguntzak bateraezinak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste zeinahi diru laguntzarekin, xede eta helburu berdinak baditu.

19.2. M06.1 "Nekazari gazteek enpresak sortzea" deritzon neurria baliatuta, nekazaritzako ustiategi batean instalatzen diren gazteek eskatu ahal izango dituzte honako foru dekretu honetan araututako laguntzak enpresa plana garatzeko. Gazteak instalatu asmo duen ustiategiari esleituko zaizkio aipatutako laguntzak.

20. artikulua. Laguntzaren finantzaketa

Dekretu honetan xedatutako laguntzetarako baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik baino ez dira etorriko, deialdi bakoitzean ezartzen diren zenbatekoen mugarekin.

ERANSKINA**ESKABIDEARI ERANTSI BEHARREKO AGIRIAK**

Hauек dira aurkeztu beharreko agiriak eskabide bakoitzarekin batera, nahiz eta agiri osagarriak eskatu ahalko diren:

A. Oro har:

Inprimaki normalizatua, behar bezala beteta eta izenpetuta.

1. Ustiatagia osatzen duten pertsona guztien NANA/IFZ.

2. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatearen eta ustiatagia osatzen duten pertsona guztien zerga betebeharrak beteta izatearen ziurtagiria, eta pertsona juridikoa izanez gero, harena eta bazkideena.

3. Pertsona edo erakunde eskatzaileak berariazko baimena eman ahalko dio Nekazaritza Sailari idatz zati honetan adierazitako egiaztagiriak eta dokumentuak zerbitzu egokiei eskatzeko.

4. Pertsona edo erakunde eskatzaileak bere gain hartzen dituen konpromisoen orria, titularrak edo legezko ordezkariak sinatua.

5. Lehentasunezko ustiatagia izatearen ziurtagiria, hala badagokio.

6. Ekoizpen ekologiko ziurtatuko erregistroetan edo kalitate programetan inskribatu dela ziurtatzen duen agiria, hala badagokio.

7. Nekazaritza eta ingurumen neurri bati helduta egotea ziurtatzen duen agiria, hala badagokio.

8. Beste erakunde batzuei inbertsio bererako laguntza eskatu ez izanaren adierazpena.

9. Fruta arbolen landaketa plan aurreikusia, zeinak E idatz zatian zehazten den gutxieneko edukia izan beharko baitu.

B. Eskatzailea pertsona fisikoa edo titulartasun partekatuko nekazaritza ustiatagia bada; gainera, hauexek aurkeztu beharko ditu

1. Eskatzailea lanbide gaikuntza eta gaitasun nahikoaren jabe dela egiaztatzen duen agiria, egiaztapen hori gerora aurkeztu ahal diren kasuetan izan ezean.

2. Lanbide gaikuntza eta gaitasun nahikoa egiaztatuko delako konpromisoa, horretarako ezarritako epearen barruan, hala badagokio.

C. Eskatzailea mota hauetako pertsona juridikoa bada: sozietate zibila, ondasunen erkidegoa edo jaraunspenezko erkidegoa, izaera orokorrean eskatutako agiriez gain, ondoko hauek ere aurkeztu beharko ditu:

1. Aurreko A eta B idatz zatietan eskatutako agiriak, ustiategiaren bazkide edo kide guztienak, bai eta horietako bakoitzak sinatutako konpromisoen agiria ere.

2. Erregistro egokian behar bezala inskribatutako eraketa edo aldaketa eskritura publiko eguneratua eta horren kopia, konpultsatzeko.

Aurreko eskabideak direla eta, eskatzaileak aipatutako agiria Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuan aurretiaz aurkeztu badu, nahikoa izango da idatziz adieraztea agirian aldaketarik ez dela izan azken laguntza eskabidea egin zenetik.

3. Bazkideen izenen zerrenda eta sozietatearen kapitalaren banaketa edo partaidetzaren ehunekoak

4. Jaraunspenezko erkidegoei dagokienez, indibisio ituna, gutxienez, 6 urtekoa, eskabidea aurkeztzen den egunetik aurrerakoa. Elkarteko kide guztiek sinatu beharko dute ituna.

D. Eskatzailea sozietate zibila, ondasunen erkidegoa edo jaraunspenezko erkidegoa ez den pertsona juridikoa bada, izaera orokorrean A, B eta C idatz zatietan eskatutako agiriez gain, ondoko hauek ere aurkeztu beharko dira:

1. Pertsona juridikoaren estatutuak eta horien kopia, konpultsatzeko.
2. Kontseilu artezkariaren osaera, eskabidea egindako unean.
3. Laguntza kudeatu eta izapidetzeko helburuz, kide jakin batzuei erakundea ordezkatzeko baimena ematen dielako erabakiaren ziurtagiria, kide horien izena, abizena, NAN zenbakia eta kargua adierazita.
4. Aurreikusitako inbertsioak gauzatzeko batzarrak hartutako erabakiaren egiaztagiria.
5. Konpromisoen agiria, pertsona juridikoaren ordezkariak edo berak eskuordetutakoak sinatuta.

E. Fruta arbolen landaketa planaren gutxienezko edukia.

E.1 Landaketa plan aurreikusiaren gutxienezko edukia:

- Gauzatu beharreko obren aurrekontua eta, hala badagokio, proiektua.
- Landaketa gauzatu den lursailen zerrenda, udal, poligono, lursail eta SIGPAC esparruen arabera, ondokoak adierazita: azalera, edukitza erregimena eta lursail bakoitzaren aurrekontua.
- Landaketa gauzatu den lurzatiaren edo lurzatiaren eta, hala badagokio, ureztaketa jarriko den lurzatiaren edo lurzatiaren jabetza egiaztatzen duen katastroko deskribapena edo agiria.
- Hala badagokio, jabearen baimena diruz lagunduko diren inbertsioak eta, hala badagokio, ureztaketa jartzea gauzatzeko.

– Erabiliko den landare materialari buruzko informazioa:

Espezia eta barietatea eta txertaka.

Jatorria (mintegiaren izena eta kokapena, erregistro zk.).

E.2 Baldin eta landaketa planak ureztaketa instalazioak aurreikusten baditu, aurrekoaz gain beste hau ere eduki beharko du:

- Ureztatzaile elkarteren batekoa bada, eskatzaile bakoitzarentzat banako ziurtagiria.
- Gainerako kasuetan, ureztapen sistema instalatuko delako lursailetan ur emakida dagoela egiaztatzen duen agiria.

E.3. Baldin eta landaketa planak finkak eta itxiturak egokitzea aurreikusten badu, beste hau ere eduki beharko du:

- Obra lizentzia edo halakorik behar ez dela egiaztatzen duen udal agiria.